

2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa

2021-2022 aldirako betetze-
mailari buruzko txostena eta
2023rako lan-plangintza

Aurkibidea

Sarrera.

Lehen zatia. 2022ko abendura arte aurreikusitako lan-helburuen betetzea eta balorazioa.

1. Lan-helburuen betetze-koadroa 2022ko abenduaren 31n.

- 1.1. I. lehentasuna: Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa.
- 1.2. II. lehentasuna: Koordinazioa eta lankidetzako gobernantza.
- 1.3. III. lehentasuna: Lerrokatzea, garatzea eta ebaluazioa.
- 1.4. IV. lehentasuna: Trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak.

2. Helburuen betetze-mailaren balorazioa.

- 2.1. 2022ko abendura arteko mugari nagusiak.
- 2.2. Programaren betetze-mailaren azterketa.
- 2.3. Ondorioak.

Bigarren zatia. 2023rako lan-plangintza.

3. 2023rako testuingurua eta helburu nagusiak.

- 3.1. Testuingurua.
- 3.2. Helburu nagusiak.

4. Jarduketa-aurreikuspenak.

- 4.1. I. lehentasuna: Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa.
 - 4.1.1. 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programako jarduketak.
 - 4.1.2. Jarduketa gehigarriak.
- 4.2. II. lehentasuna: Koordinazioa eta lankidetzako gobernantza.
 - 4.2.1. 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programako jarduketak.
 - 4.2.2. Jarduketa gehigarriak.
- 4.3. III. lehentasuna: Lerrokatzea, garatzea eta ebaluazioa.
 - 4.3.1. 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programako jarduketak.
 - 4.3.2. Jarduketa gehigarriak.
- 4.4. IV. lehentasuna: Trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak.
 - 4.4.1. 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programako jarduketak.
 - 4.4.2. Jarduketa gehigarriak.

Aurkezpena

2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa 2021eko ekainaren 29an onartu zuen Eusko Jaurlaritzak. Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak Lehendakaritzatik bultzatzen duen legegintzaldiko plana da, GJHekiko konpromisoa sailen eta erakundeen artean dinamizatzeko, koordinatzeko eta bultzatzeko. Programa horrek lau lehentasun-ardatz ezartzen ditu: (I) Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa; (II) Koordinazioa eta gobernantza kolaboratiboa; (III) Lerrokatzea, garapena eta ebaluazioa; eta (IV) Trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak.

Hirugarren lehentasun-eremuan ezarritako aurreikuspenen artean, zehazki 7.4. puntuan, “Hartutako konpromisoak betetzeari buruzko urteko Txostenen aurkezpena” dago. “Irizpideen” atalean zehaztuta dago “txosten horiek bi zati izango dituztela: lehenengoan, hartutako konpromisoen betetze-mailari buruzko memoria jasoko da; bigarrenean, berriz, kudeaketa-plan bat sartuko da hurrengo urte bakoitzerako”. Era berean, ezartzen da 2024ko lehen seihilekoan “Legealdiko Memoria” bat egin eta aurkeztu behar dela.

Betetze-ekitaldi, memoria eta urteko eta legegintzaldiko jardueren balantzea egiteko ekitaldi horiek Nazio Batuei 2030 Agendaren Urteko Jarraipenaren Borondatezko Txostenak aurkezteko diziplinarekin osatzen dira. Diziplina hori 2018an jarri zen abian. Eusko Jaurlaritza txosten horiek egiten estatus azpiko lehen gobernua da. Lehenengo ediziotik orain arte, borondatezko bost txosten argitaratu dira, urteroko lana izan da.

Dokumentu honek, beraz, beraz, 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programan ezarritako aurreikuspenei erantzuten die. Programa hori 2021eko ekainean onartu zenez, lehen kudeaketa-urte erdiari buruzko Txostena ez zen 2022ko hasieran egin, osoaldi laburra zelako; eta baliagarriagozat jo zen 2022ko txostenean txertatzea. Horregatik, txosten hau 2021eko ekainetik 2022ko abendura bitarteko aldiari dagokio.

Txostenak bi zati ditu. Lehenengoa bi puntutan egituratuta dago: lan-helburuen betetze-aula eta helburuen betetze-mailaren balorazioa. Jarduera-egutegiaren garapen-maila laburbiltzen duen koadroa hiru zutabetan antolatuta dago. Lehenengoak, *Lan-helburuak*, aztergai den aldirako ezarritako aurreikuspen bakoitzaren enuntziatua gogorarazten du. Bigarren zutabeak, *Jarraipena* izenekoak, ekintza bakoitzaren garapen-maila deskribatzen du. Eta hirugarrenak, *Betetzea* izenekoak, gauzatze-maila zehazten du eta, beharrezkoa denean, egutegiaren doikuntzak zehazten eta arrazoitzen ditu. Balorazio hori osatzeko, bost mailatan sailkatzen da 2022ko abenduaren 31ko aurreikuspenen betetze-maila: % 20, 40, 60, 80 edo 100.

Txostenaren bigarren zatian 2023rako lan-plangintza aurkezten da, 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren aurreikuspenak ekitaldi honetan aplikatzeari dagokionean. Bi puntutan egituratzen da: lehenik eta behin, 2023rako testuingurua eta helburuak, eta bigarrenik, jarduketa-aurreikuspenak.

Bestalde, 2022ko balantzearen lehen blokean eta 2023rako aurreikuspenen bigarren blokean, “jarduketa osagarrien” atala gehitzen da, hala dagokionean. Atal horietan, Legegintzaldiko programan berariaz aurreikusi ez diren baina garatzen ari diren dinamiken eraginez lan-plangintzari erantsi zaizkion ekimenen edo helburuen garapena islatzen da.

Lehen zatia

2022ko abendura arte aurreikusitako lan-helburuen

betetzea eta balorazioa

1. Lan-helburuen betetze-koadroa 2022ko abenduaren 31n

1.1. I. lehenetsuna: Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa

Lan-helburua	Jarraipena	Betetzea
·Euskadi 2030 Agenda Kontratu Sozialaren proposamenaren oinarrizko liburuxka aurkeztea.	·Liburuxka hau aurkezteko alde aurreko urratsa izan da web gunean "Zer da 2030 Agenda" atala sartzea. Atal horretan, Agendak eta GJHeK zer esan nahi duten eta zer adierazten duten jakiteko informazio-aukera desberdinak daude, laburragoak edo zabalagoak.	·Helburua abian. % 80.
·GJHei buruzko informazio-eta dibulgazio-kanpaina bat egitea urtero.	·2021eko udazkenean, lehen dibulgazio-kanpaina egin zen, honako goiburua honekin: "Premia eta aukera". ·2022ko udazkenean, bigarren kanpaina egin zen "Nazio Batuak Euskadin, Euskadi Nazio Batuekin", Local 2030 Idazkaritza Euskadin kokatzen dela ezagutarazteko.	·Helburua beteta. % 100.
·2030 Agenda Bonuen Programa abian jartzea, 2030 Agenda ezartzeko dibulgazio- eta prestakuntza-ekintzak diruz laguntzeko.	·2030 Agenda Bonuen Programako dirulaguntzak arautzen dituen otsailaren 15eko 23/2022 Dekretua argitaratu ondoren, 2022ko laguntzen deialdia egin zen 2022ko otsailaren 23ko Ebazpenaren bidez.	·Helburua beteta. % 100.
·Hezkuntzaren eremuan lantalde bat sortzea eta baliabide pedagogikoak sortzea 2030 Agendaren arloan.	·Lantaldea 2022ko maiatzaren 2an bildu zen. Harrezkero, oso aurreratuta dago 2030 Agendari buruzko ikus-entzunezko material bat sortzea, hezkuntza-eremuan erabiltzeko. 2023ko erdialdean aurkeztea aurreikusten da.	·Helburua abian. % 80.
·2030 Agendaren arloko prestakuntza-prozesuei laguntzeko programa egitea, Administrazio Publikoko langileei zuzenduta, bai eta programa sektorialeiei ere, enpresetan zein gizarte-erakundeetan.	·2021ean, oinarrizko prestakuntza eman zitzaizen Lehendakartzako teknikariei. Gainera, IVAPekin lankidetzan, "2030 Agenda eta Garapen Jasangarrirako Helburuak: gure politika publikoak hobetzeko tresna" ikastaroaren lau edizio egin ziren. 2022an, ikastaroaren beste bi edizio egin ziren. ·2021eko abenduan, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak gidoi bat diseinatu zuen zazpi orduko dibulgazio-ikastaroak emateko. Horrekin batera, beharrezko material didaktikoak prestatu zituen (diapositibak, dokumentazio osagarria, etab.). ·2022ko otsailaren 24an eta 25ean, Idazkaritzak formakuntza eskainiko zuten pertsonak prestatzeko ikastaro bat antolatu zuen, eta bost gizarte-erakundetako 19 pertsonak parte hartu zuten. Erakunde eta pertsona horiek arduratu ziren une hartatik aurrera Eusko Jaurlaritzak eskaini zituen ikastaroak emateaz. ·Esparru horretan, 2022an, Idazkaritzak 2030 Agendari buruzko dibulgaziozko prestakuntzarako bi eskaintza sustatu ditu,	·Helburua beteta. % 100.

	<p>herritar guztiei irekiak.</p> <p>2021eko ekainetik 2022ko abendura, 1.500 pertsonak baino gehiagok parte hartu dute prestakuntza-eskaintzetan.</p> <p>2023an, prestakuntza-programa honekin jarraitzea aurreikusi da.</p>	
<p>·Lankidetzaren esparru bat sustatzea Euskadiko Gazteriaren Kontseiluarekin (EGK), parte-hartzearen eta inplikazioaren ikuspegitik.</p>	<p>·Urteko aurrekontuetan, Euskadiko Gazteriaren Kontseiluaren aldeko partida bat dago, EGK-k 2030 Agendaren arloan egiten dituen jarduerak finantzatzeko laguntzeko, eta, zehazki, 2030 Agendari buruzko dibulgazio-kanpaina bat bultzatzeko gazteen artean.</p> <p>·2022an, “2030 Agenda Gazte Plazan” erakusketa ibiltaria diseinatu eta bultzatu zen, dibulgaziozko eta partaidetzazko ekimen bat. 2022ko udazkenean, hiru lurralde historikoetako hiriburuetan ezarritako erakusketa 2.500 pertsonak baino gehiagok bisitatu zuten. Aldi berean, ikastetxeentzako eta elkarrizketa- eta partaidetza-programa antolatu zen publiko orokorarentzako eta, bereziki, gazteentzako. 2023an, Euskadiko beste herri batzuetan jartzea aurreikusi da.</p>	<p>·Helburua beteta.</p> <p style="text-align: right;">% 100.</p>

•Jarduketa gehigarriak

·2021eko irailaren 15ean, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak “2030 Agendarako erronkak eta indarguneak: Hirugarren sektorearen, elkarleen eta gizarte mugimenduen eginkizuna” ikastaroa antolatu zuen Euskal Herriko Unibertsitatearen Udako Ikastaroen barruan. Ikastaro honek, 2030 Agenda hirugarren sektoretik, elkarre-eremutik eta gizarte mugimenduetatik ezartzeko arrakastaren adibideak aztertu nahi ziren.

·2022ko martxoaren 28an, Gasteizko Villa Suso Jauregian, GJHen aurrerapena Euskadiko udalerrietan aurrez aurreko eta online jardunaldia egin zen, Garapen Jasangarrirako Espainiako Sareak (REDS) eta Euskal Herriko Unibertsitateak (UPV/EHU) elkarrekin antolatua, Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren eta Gasteizko Udalaren lankidetzarekin.

·2022ko uztailaren 12an eta 13an, EHUren Udako Ikastaroen esparruan, “2030 Agenda, kontratu sozial berri bat” ikastaroa egin zen, Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak eta EHUk elkarrekin antolatutakoa. Miguel Poiates Maduro Portugalgo Unibertsitate Katolikoko Zuzenbide Eskola Globaleko dekanoa eta Gobernantza Transnationaleko Eskolako zuzendari ohia izan zen hizlari nagusi.

·2022ko udan, Donostiako Zinemaldiak eta Eusko Jaurlaritzako Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak erabaki zuten Zinemaldia eta GJHekiko euskal konpromisoaren irudia elkarrekin joatea. Lankidetzaren horren ondorioz, Lehendakartzak komunikazio-kanpaina bat garatu zuen Zinemaldiaren programaren barruan, bi helbururekin: jasangarritasunaren pedagogia egitea eta Euskadik 2030 Agendarekin duen konpromisoa nazioartean hedatzen jarraitzea. Garatutako jardueren artean, nabarmenena 2030 Agenda Euskadi Basque Country saria eman izana izan zen. Izan ere, Zinemaldiaren 70. edizioaren programazio ofizialean, jasangarritasunaren eta elkartasunaren balioak hobeto islatu zituen filmari eman zitzaion, Nazio Batuen 2030 Agendak bultzatzen dituen Garapen Jasangarrirako Helburuen ikur nagusi gisa. Irailaren 23an, Tori et Lokita, filmari eman zitzaion saria.

1.2. II. lehen tasuna: Koordinazioa eta lankidetzako gobernantza

Lan-helburua	Jarraipena	Betetzea
·Sektoreko bilerak, Eragile Anitzeko Foroa prestatzeko eta lantaldeak sortzeko.	·Foro hori sortu aurretik, 2021eko otsailean eta martxoan, sailarteko eta erakundearteko informazio-bilerak egin ziren, 2030 Agendaren Lehen tasunaren Programaren dokumentuari eta Eragile Anitzeko Foroaren proposamenari buruzko lehen iritzia trukatzeko. ·2021eko uztailaren 6an, Gobernu Kontseiluak 166/2021 Dekretua onartu zuen, Euskadin Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa sortzeko eta arautzeko. Erakundearteko organoa da, eta Euskadiko politika publikoetan 2030 Agenda harmonizatzen eta garatzen lagunduko du.	·Helburua beteta. % 100.
·Eragile Anitzeko Foroa eta lehen lantaldeak eratzea.	·2021eko azaroaren 9an, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa eratu zen, Iñigo Urkullu Renteria Lehendakaria buru zela, Arabako Parke Teknologikoan, Miñaoan. Organo horrek 2030 Agendaren Gobernantza partekatua sustatu nahi du euskal erakundeen eta gizarte-eragileen artean. Lehen bilera horretan, "Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroaren egitura, lehen tasunak eta lehen lan-agenda" dokumentua onartu zen. ·Foroak organo hauek ditu: Osoko Bilkura, Batzorde Iraunkorra eta bost Lantalde: Gobernantza, Bultzatu 2050 Euskadiko Hiri Agenda, Eraldaketa Soziala, Eraldaketa Energetiko-klimatiko eta Eraldaketa Ekonomiko-digitala. Lantalde horiek 2021eko azaroan eratu ziren, eta Osoko Bilkuran onartutako gobernantza-ereduaren arabera funtzionatzen hasi ziren. ·2022ko martxoaren 29an Donostian egindako Osoko Bilkuraren bigarren bileran, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroaren (Euskadi 2030 Agenda Foroa) 2022ko Kudeaketa Plana onartu zen. Plan horretan, 2022rako lan-helburuak eta urteko bileren egutegia zehazten ziren organo bakoitzerako. ·Euskadi 2030 Agenda Foroak hirugarren Osoko bilkura egin zuen Bilbon, 2022ko urriaren 25ean. Bilera horretan, 2022an egindako jardueraren balantzea eta 2023ko Kudeaketa Plana prestatzeko eztabaida egin zen, eta GJHen ikuspegia erakunde publikoen aurrekontuak egitean eta kudeatzean txertatzeko proposamena aurkeztu zen. ·Foroaren Presidentziaren Adierazpen bat argitaratzen da Foroaren Osoko Bilkuraren bilera guztietan.	·Helburua beteta. % 100.

	<p>·2022. urtearen amaieran, Batzorde Iraunkorrek 2022ko Memoriaren eta 2023ko Kudeaketa Planaren lehen zirriborro bat kontrastatu zuen Foroko organo eta lantaldeekin, memoriaren eta kudeaketa-planaren lehen proposamen bat prest edukitzeko eta 2023ko martxoaren 15eko Osoko Bilkuran behin betiko onartzeko aurkezteko.</p>	
<p>·Euskadi 2030 Guneak Lankidetzaren Mahaien proposamena eta programa egitea.</p>	<p>·2022ko otsailaren 7an, Guneak Ekimena eratu zen, Foroaren dinamiken parte-hartze soziala eta eragile anitzeko lankidetzaren zabalteko pentsatutako gunea.</p> <p>·Hasiera batean, hiru Gune sortzea aurreikusi zen, Eraldaketa Sozialeko, Eraldaketa Energetiko-Klimatikoko eta Eraldaketa Ekonomiko-Digitaleko lantaldeei begira. Abian jarri ondoren, kideak bat etorri ziren esatean erabilgarriagoa zela talde bakar batean biltzea, eraginkortasuna eta sinergia indartzeko. 2022ko irailaren 20an, Guneak ekimena lantalde bakar batean berregituratu zen.</p>	<p>·Helburua beteta.</p> <p style="text-align: right;">% 100.</p>
<p>·Nazio Batuen erreferentziako foro eta gaikako talde nagusiekin harremanetan jartzea eta horietan parte hartzea.</p>	<p>·2022ko otsailaren 2an, Eusko Jaurlaritzak ECOSOC Partnership Forumaren Osoko bilkuran parte hartu zuen. Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak antolatu zuen bilkura, NBEren New Yorkeko egoitzan. Eusko Jaurlaritzak, Regions4 eta NBEko Tokiko Agintarien Talde Nagusia (LAMG) ordezkatzuz, Estaturik gabeko gobernuen presentzia handiagoa izatea proposatu zuen 2030 Agenda bultzatzeko.</p> <p>·2022ko maiatzaren 4an, Eusko Jaurlaritzako Kanpo Harremanetarako eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusietako arduradunek topaketa telematikoa egin zituzten Kolonbiako, Danimarkako, Estatu Batuetako, Frantziako, Irlandako, Italiako, Japoniako, Mexikoko, Norvegiako, Herbehereetako, Portugaleko, Erresuma Batuko eta Suediako enbaxadetako ordezkariekin, bai eta Madrilen egoitza duten Nazio Batuen nazioarteko erakundeetako ordezkariekin ere: UN HABITAT, Munduko Ituna-Global Compact, OIM-Migrazioen Nazioarteko Erakundea, UNICEF, ACNUR, UNRWA, OIT eta OMT-UNWTO, 2030 Agendaren lehentasunen Euskal Programa aurkezteko. Bi topaketa horiek Eusko Jaurlaritzak Madrilen duen Ordezkaritza azken urteotan antolatzen ari den topaketen egutegiaren parte ziren.</p> <p>·2022ko uztailaren 7an, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren idazkari nagusiak 2030 Agendari buruzko Tokiko eta Eskualdeko Gobernuen Bosgarren Foroan parte hartu zuen, "Garapen Jasangarrirako Helburuak toki-mailatik 2023ko GJHen Gailurrerantz</p>	<p>·Helburua beteta.</p> <p style="text-align: right;">% 100.</p>

iristea sustatzea” lelopean. Foro hori Global Taskforce erakundeak antolatu zuen, NBE, DESA, NBGP, NBE-Habitat eta Local 2030ekin batera.

Jarduketa gehigarriak

·2022ko maiatzaren 3an, bilera bat egin zen Félix Fernández-Shaw-ekin, Europako Batzordeko INTPA (International Partnerships) Zuzendaritza Nagusiko *Director for Sustainable Development Policy and Coordination* delakoarekin eta haren taldearekin, GJHeK EBren programekin duten loturaren alderdi zehatzei buruz: “Lege hobeak egitea”, “Foresight”, eta “Especializazio Adimenduna”.

·2022ko maiatzaren 3an, “Estatuz azpiko gobernuen zeregina 2030 Agendaren ezarpenean: Mexikoren eta Euskadiren ikuspegia” webinarrean parte hartu zen. New Leongo, Jaliskoko, Querétaroko eta Euskadiko gobernuak hartu zuten parte, Nazioarteko Gaietarako Mexikoko Kontseiluarekin (COMEXI) eta Monterreyko Institutu Teknologikoarekin batera.

·2022ko ekainaren 7an, ekitaldi birtuala antolatu zen “GJH ekintzaren hamarkada: tokiko eta eskualdeko gobernuen rola”, Argentinako Kordobako probintziako gobernuarekin batera antolatua, esperientziak eta jardunbide egokiak trukatzeko eta 2030 Agendaren eta GJHen aldeko lana bizkortzeko baterako ekintzak azaltzeko. Kordobako Probintziako gobernuaren ordezkariak, NBEko hainbat erakunderen ordezkariak eta Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak parte hartu zuten ekitaldian, besteak beste.

·*Local 2030* egoitza orokorra Euskadin kokatzea:

-2022ko uztailaren 11n, Espainiako Gobernuak, Eusko Jaurlaritzak, Bilboko Udalak eta BBKk Garapen Jasangarriari buruzko Nazio Batuen Goi Mailako Foro Politikoan aurkeztu zuten *Local 2030* Koalizioaren Idazkaritza Bilbon hartzeko hautagaitza. Proposamena *Local 2030* Koalizioaren Zuzendaritza Batzordeak babestu zuen.

-2022ko irailaren 14an, Nazio Batuek berretsi zuten Bilboko hautagaitza onartu zutela *Local 2030* Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza gisa. Koalizio horren buruzagitza NBE-Habitat eta NBGP (Nazio Batuen Garapenerako Programa) erakundeek partekatzen dute, eta Amina J. Mohammed, gaur egun Nazio Batuen idazkariorde nagusia da bere burua.

-2022ko urriaren 31n, *Local 2030* Koalizioaren Idazkaritza ireki zen Bilbon, eta Amina J. Mohammed Nazio Batuen idazkariorde nagusia eta Garapen Jasangarriko Nazio Batuen Taldearen presidentea izan zen bertan. Egoitza Eusko Jaurlaritzaren eraikineko seigarren solairuan dago, Euskadiko Artxibo Historikoa eta Gogora Institutua dauden lekuan.

1.3. III. lehenetsuna: Lerrokatzea, garatzea eta ebaluazioa

Lan-helburua	Jarraipena	Betetzea
·Urteko jarraipen-txostenak aurkeztea.	·Eusko Jaurlaritza Estaturik gabeko lehen gobernua izan zen 2018an Nazio Batuetan Urteko Borondatezko Jarraipen Txostena aurkeztu zuena. Euskadik dagoeneko bost urtez txostena aurkeztu du, autoebaluazio-txosten horien aurkezpenean buru dela. Konpromiso horrek Jaurlaritzako arlo eta sail guztiak hartzen ditu barnean. 2021ean eta 2022an, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak jarraipena eman dio konpromiso horri, Euskadi 2030 Agendaren laugarren eta bosgarren borondatezko jarraipen-txostenak koordinatu eta egiteko, eta UNDESARA (Nazio Batuen Ekonomia eta Gizarte Gaietako Saila) bidaltzeko.	·Helburua beteta. % 100.
·Eustatekin batera, 2030 Agendaren betetze-mailaren jarraipena egiteko adierazle-sistema bat diseinatzea eta egitea.	·Adierazleei buruzko erakundearteko gaikako talde bat sortu da 2030 Agenda Euskadi Foroaren Gobernantzako Lantaldearen inguruan. ·GJHen jarraipena egiteko 50 adierazleko panel bat lantzen ari da. Adierazle horiek udalerrri-mailara arte bereizita egongo dira, eta hiru erakunde-mailek partekatuko dituzte. ·2023ko urtarrilean, jendaurrean aurkeztea aurreikusita dago.	·Helburua abian. % 100.
·Euskadi Basque Country 2030 Agenda eguneratzea.	·Lehen zirriborroa 2023ko martxorako prest egotea aurreikusten da. Euskal Autonomia Erkidegoak GJHei egindako ekarpen osoa jasoko du.	·2023ra atzeratutako helburua. % 40.
·Azterlanak eta txostenak egiteko enkarguak diseinatzea.	·Bi urte hauetan, txosten hauek egin dira: -Euskadiko errealitate sozialaren ezagutzamailari, pertzepzioari eta bilakaerari buruzko azterlana, 2030 Agendari dagokionez. Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabinetea. -“Arriskua eta aurrea hartzeko eta prebenitzeko beharra: Euskal Autonomia Erkidegoko 2030 Agendan txertatzeko ideiak”. IECAH. -“Gure Agenda Bateratua eta kontratu soziala berritzea. 2030 Agenda eta multilateralismo eraginkorra eta tokikoa”. Mariano Aguirre. -“Hub Euskadi 2030 nazioartekotzeko estrategia”. Javier Cortés (Coop & Co).	·Helburua beteta. % 100.

·2030 Tokiko Agenda-2030 Udalsarea hedatzen laguntzea.	·2022ko uztailaren 12an, Gobernu Kontseiluak “Euskadin 2030 Agenda eta tokiko ekintza jasangarria sustatzeko” adierazpen instituzionala onartu zuen. Adierazpen horren bidez, Lehendakaritza Udalsarea 2030 Udalerri Jasangarrien Euskal Sareari atxiki zitzaion, erakunde sustatzaile gisa.	·Helburua beteta. % 100.
·Hartutako konpromisoak betetzeari buruzko urteko Txostenak eta hurrengo urteko kudeaketa-plana aurkeztea.	·Jarraipen-txosten honek konpromiso horri erantzuten dio.	·Helburua abian. % 100.

Jarduketa gehigarriak

·2021eko urriaren 20an, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak esparru-akordio bat sinatu zuen EUDELekin, udalek Euskadiko 2030 Agendari egingo dioten ekarpena bermatzeko, maila anitzeko gobernantzatik eta inplikaturako eragile guztien arteko lankidetzatik heldu beharreko erronka global gisa. Akordioak udalerrien lankidetzaz bideratzen du EUDELe bidez, eta tokiko gobernuek Euskadin 2030 Agenda ezartzeko prozesuan koordinatzeko eta parte hartzeko mekanismoak antolatzen ditu.

·2022an, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusia Udalsarea sarean sartu da erakunde sustatzaile gisa, eta lankidetzazko protokoloak sinatu ditu UN Etxea, Jakiunde, Kutxa Fundazioa, Vital Fundazioa, Basque Culinary Center eta Fabrika erakundeekin. Protokolo horiek bi helburu nagusi dituzte: lehenik eta behin, lankidetzazko esparru orokor bat ezartzea, Euskadin 2030 Agenda kontratu sozialaren kultura ehuntzen laguntzeko; eta, bigarrenik, ondorengo akordioei bide ematea, jasangarritasunaren arloko ekimen zehatzak bultzatzeko.

·Ildo beretik, Eusko Jaurjaritza Arantzazu Gaur Fundazioaren Patronatuan sartu da, eta bertan parte hartuko du Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren bidez. Fundazio horrek Arantzazulab sortu du, gizarte-berrikuntzako laborategi gisa. Haren helburua da euskal gizartearen etorkizunari eta erronkei buruzko hausnarketarako eta esperimenterako gune bat sustatzea, bereziki lankidetzazko gobernantzaren eta herritarren parte-hartzearen arloan.

·2022ko udazkenean, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiak “GJHen ikuspegia erakunde publikoen aurrekontuetan txertatzeko lehen urratsen iradokizuna” dokumentua prestatu zuen. 2030 Agenda Euskadi Foroaren hirugarren Osoko Bilkuran aurkeztu zen, Bilbon, urriaren 25ean.

1.4. IV. Iehentasuna: Trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak

Lan-helburua	Jarraipena	Betetzea
·Sailen arteko kontsulta-prozesua garatzea zazpi proiektu enblematikoak identifikatzeko, eta beste erakunde eta gizarte-eragile batzuekin partaidetza-prozesua garatzea.	·2030 Agendako Iehentasunen Euskal Programak jaso zituen zazpi proiektu enblematikoak definitzeko, aldebiko bilera ugari egin ziren sailekin, eta, azkenean, zazpi proiektu enblematikoak idatzi ziren.	·Helburua beteta. % 100.
· <i>Ekitatea</i> proiektua. Desberdintasunaren aurrean zentzu-batasun bera duten zazpi programaz osatuta dago. DSBE eta Gizarte Larrialdietarako Laguntzak bezalako ohiko laguntzekin batera, aurrekontu handiagoa ematen die, aparteko programekin premia larriko egoeren aurrean.	·Zazpi programak honako hauek dira: -Diru-sarrerak Bermatzeko Errenta Programa eta Etxebizitzarako Prestazio Osagarria (EPO). Eredua indartzea, bizitzeko gutxieneko diru-sarreraren errealitate berria integratuz. -Gizarte Larrialdietarako Laguntzen Programa (GLL). -Azken Sarea Indartzen Programa. -Lehen Urratsa Programa. -Aukerak Suspertzen Programa. -Euskarri Programa. -Gizarteratzeko IV. Planean jasotako jardueren Programa, V. Planak ordezkaturako duena. Guztiak daude martxan eta betetze-maila aurreratuan.	·Helburua abian. % 100.
· <i>Hezkuntzaren auzolana</i> proiektua. Zeharkako proiektu gisa eratzten da, hezkuntza-etapa guztietan ekimenak eta kolektibo kalteberenei arreta berezia eskainiz. Hiru ardatzetan esku hartzea proposatzen da: (1) ekitatea eta berdintasuna, (2) aniztasunarekiko arreta eta (3) gizarte-kohesioa eta elkartasuna.	·Proiektu hau deskribatzen duen argitalpena prestatu da. Lehen etapetan garatzen eta ezartzen ari da. Horri dagokionez, Lanbide Heziketako VI. Euskal Plana nabarmendu behar da, GJHekin eta 2030 Agendarekin lerrokatuta. Plan horrek lanbide-heziketako eredu berri bati heldu nahi dio, disrupzio teknologikoko testuinguru trinko batean murgilduta dagoen eta erronka berriak planteatzen dituen gizarte batera egokitzeko gaitasunarekin. ·Kanpo-dimentsioari dagokionez, eta eLankidetzarekin lankidetzan, harremanetan daude Malawiko Nazio Batuen Connect MySchool programarekin lankidetzan aritzeko.	·Helburua abian. 60%.
· <i>Ekiola</i> proiektua. Herritarrek energia berriztagarriak sortzen eta kudeatzen parte har dezaten sustatzea, udalerrri eta eskualdeetako eguzki-parkeen eta herritarren kooperatiben bidez.	·Ekiola. Lehenengo fasean, 12 kontsumo-kooperatiba eratu dira, eta beste hiru prozesuan daude. Abian jartzea onarpen onarekin egiten da, hasi diren edo hasiko diren udalerrietan. Helburua da esperientzia horiek biderkatzea Legegintzaldian.	·Helburua abian. % 60.
· <i>Klima-Ondarea</i> proiektua. Bi jarduera-eremu ezartzen ditu natura-baliabideak modu	·Klima-Ondarea. Urdaibaiko zein Txingudiko Badiako proiektuei ekin zaie.	·Helburua abian. % 60.

<p>jasangarrian erabiltzeko eta zerbitzu ekosistemikoak hobetzeko: Txingudi Badia eta Urdaibaiko Biosfera Erreserba.</p>		
<p>·<i>Opengela</i> proiektua. 2026ra arte, bost auzotako eremu kaltetuenetan esku hartzea proposatu du: Otxarkoaga (Bilbo), Txonta (Eibar), Aramotz (Durango), Basaundi (Lasarte-Oria) eta Pasaia.</p>	<p>·Otxarkoagan, Txontan eta Basaundin hasi dira lanak. Aurreikusita dago proiektatutako gainerako auzoetan esku hartzen hastea eta hasiera batean proiektuan ez zeuden beste udalerrri batzuetara zabaltzea.</p> <p>·Kanpo-dimentsioari dagokionez, lehen kontaktuak egin dira <i>Oficina del Historiador de la Ciudad de la Habana</i>-rekin.</p>	<p>·Helburua abian. % 60.</p>
<p>·<i>Osasun Globalaren</i> proiektua. Lankidetzahitzarmena, Osasun Sailaren (Osakidetza) eta Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren artekoa. Osasunaren arloan lankidetzak ekimenak bultzatzea du helburu.</p>	<p>·2022an abian jarri da Ginea Bissaun, Simão Mendes Ospitale Nazionalarekiko Lankidetzaren Sanitarioko Programa. Osasuneko eta antolaketako langileak lekualdatu dira, bai Ginea Bissautik Euskadira, bai Euskaditik Ginea Bissaura.</p> <p>·2021ean eta 2022an, Eusko Jaurlaritzak COVAX mekanismoari dohaintzak egin dizkio txerto solidario eta global baterako, 1.100.000 euroko zenbatekoarekin, eta herrialde behartsuetan hiru milioi txerto banatzea erraztu du.</p>	<p>·Helburua abian. % 100.</p>
<p>·<i>Basque Ecodesign Center</i> proiektua.</p>	<p>·Metodologia eta proiektu berritzaileen pilotajea bultzatzen du, tokiko ETEak eta hornidura-kateak sartuz ekonomia zirkularra hedatzeko. Ikuspegi bikoitza: lehiakortasuna hobetzea eta ingurumen-inkonpatibilitateak prebenitzea. Lankidetzaren publiko-pribatua eratzen du, Eusko Jaurlaritzaren, Euskadiko enpresa handien eta klusterrak dinamizatzeko bederatzi erakunderen arteko lankidetzak-akordioaren bidez, ekonomia zirkularra sustatzeko.</p> <p>·2021ean Basque Ecodesign Center 2021-2025en akordioaren aldi berria sinatu zenean, Euskadiko 16 enpresa handi batu dira ekimen honetara.</p> <p>·Proiektu hau diseinatuta eta hasita dago, baina Legegintzaldiaren azken zatian hedatu eta garatu behar da.</p>	<p>·Garatzeke dagoen helburua. % 40.</p>
<p>·<i>The Basque case: lessons learned for the prevention of violence and protection of peace</i> proiektua.</p>	<p>·Euskal kasutik indarkeriaren prebentzioaren eta bakearen babesaren arloan atera daitezkeen zenbait ikaskuntza eskaintzen dituen txostena egin eta nazioartean zabaltzean datza, gatazkaren eta indarkeriaren beste testuinguru batzuetan kontrastatu ahal izateko.</p> <p>Proiektua aurreratuta dago, baina 2023an edo 2024ko lehen hilabeteetan aurkeztea aurreikusten da.</p>	<p>·2023ra atzeratutako helburua. % 60.</p>

2. Helburuen betetze-mailaren balorazioa

Aldiaren erdialdean aurreikuspenak betetzeari buruzko balorazio honi ekiterakoan, alde zuzenetik adierazi behar da 2021eko ekainetik 2022ko abendura bitarteko denboraren konplexutasuna. Lehen esan bezala, 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programa 2021eko ekainean onartu zen, oraindik pandemiaren bigarren urtearen erdian.

Aldi horretan, munduak eta Euskadik pandemiaren bigarren fasearen ondorioak erabat pairatzen jarraitu dute. 2022ko otsailetik aurrera, eta COVID-19a arintzen hasi zela zirudienean, Errusiak Ukraina inbaditu zuen, ondorio gizatiar, sozial, ekonomiko edo geopolitikoekin, globalak zein tokikoak. Testuinguru txar horretan eutsi dio Eusko Jaurlaritzak Nazio Batuen Garapen Jasangarrirako Helburuekin duen konpromisoaren bultzadari.

Pandemiaren zailtasunak eta Ukrainaren inbasioa kontuan hartu beharreko faktoreak dira Legealdi-plan honetan ezarritako konpromiso programatikoak betetzen diren baloratzeko orduan. Inpaktu hori zuzenago ikusten da jardueren hasieran edo garapenean atzerapenak izan dituzten zazpi proiektu adierazgarrietako batzuen garapenean. Nolanahi ere, eta aurreko puntuan egiaztatu ahal izan denez, oro har, konpromisoen betetze-maila handia izan da.

Azkenik, aipatu behar da 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren urteko jarraipen-txostenen tresnak egutegiaren konpromisoen betetze-maila duela ardatz nagusi. Planaren ebaluazioaren alderdirik kualitatiboena modu espezifikoagoan jorratuko da 2024ko lehen seihilekoan jorratzea aurreikusita dagoen Legegintzaldiko memorian.

2.1. 2022ko abendura arteko mugarri nagusiak

Egiaztatu ahal izan denez, jarduera ugari egin dira jarraipen-txosten honek jasotzen duen 18 hilabeteko epean. Hala ere, hiru nabarmendu behar dira garrantzi kualitatibo berezia dutelako: Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa eratzea, Nazio Batuen ECOSOCen Osoko Bilkuran zuzenean parte hartzea eta *Local 2030* munduko egoitza Euskadin kokatzea.

2.1.1. Euskadi 2030 Agenda Foroa eratzea eta abian jartzea

2021eko uztailaren 6an, Eusko Jaurlaritzak 166/2021 Dekretua onartu zuen, Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Eragile Anitzeko Foroa sortu eta arautzeko duena. Foro hori, 15 hilabeteko epean, Euskadin GJHen lankidetzaren organo gisa bilakatu da. Bere ibilbidearen ebaluazioak hiru lorpen garrantzitsu nabarmentzeko aukera ematen du:

- Lankidetzan oinarritutako gobernanta-eredu bat zehaztu da, parte-hartze publikoarekin eta pribatuarekin eta gizarte zibilaren parte-hartzearekin, eta erraz funtzionatu du.
- Informazio- eta lankidetzaren fluxuak hobetzen lagundu duten koordinazioko eta deliberazio partekatuko espazioak konfiguratu dira.
- Zeharkako lan-irizpide bat bultzatu da, 2030 Agenda *zehatzaren metodologiarekin* eta proiektu eta helburu argietan gauzatzearekin lotzen duena.

2.1.2. NBERen ECOSOC Partnership Forumaren Osoko Bilkuran parte hartzea

2022ko otsailaren 2an, Eusko Jaurlaritzak ECOSOC Partnership Forumaren Osoko Bilkuran parte hartu zuen. Ekonomia eta Gizarte Kontseiluak antolatu zuen bilkura, NBERen New Yorkeko egoitzan. Eusko Jaurlaritzak, Regions4 eta NBERen Tokiko Agintarien Talde Nagusia (LAMG) ordezkatzuz, estaturik gabeko gobernuek presentzia handiagoa izatea proposatu zuen 2030 Agenda bultzatzeko.

2.1.3. *Local 2030* munduko egoitza Euskadin kokatzea

Urte eta erdiko hirugarren mugarria, 2021eko ekainetik igarota, 2022ko irailaren 13an Nazio Batuekin lortutako akordioa da, *Local 2030* Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza Euskadin kokatzeko. Horrek aintzatespena ematen dio EAEko erakundeek azken urteotan egindako ibilbideari, eta etorkizunerako konpromisoa dakar 2030 Agendarekin. *Local 2030* Koalizioaren funtsezko misioa GJHen lokalizazioa sustatzea da. Hau da, 2030 Agendaren garapena bultzatzea mundu osoko eskualdeetako eta udalerrietako erakundeetan.

2.2. Programaren betetze-mailaren azterketa

Helburuen jarraipen-taulan egiaztatu ahal izan denez, 18 hilabete hauetan lortutako betetze-maila oso altua da. Balantze positibo hori hiru apuntetan laburbil daiteke.

2.2.1. Aurreikusitako ekimen guztiak abian daude

2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programan aurreikusitako 25 jarduketetatik, guztiak ari dira hedatzen gauzate-maila desberdinetan. Datu horrek aukera ematen du Programaren aurreikuspen guztiak Legegintzaldiaren denbora-eremuaren barruan betetzeko arrazoizko ikuspegia iragartzeko.

2.2.2. Egutegiko konpromisoen betetze-maila handia da

Planaren lan-egutegiak 2022ko abenduaren 31n bete izanak betetze-balantze handia ematen du, eta bi mailatan sailkatuta dago. Lehenik eta behin, aurreikusitako 25 ekimenetatik 18k beren egutegi-konpromisoen % 80-100 bete dute 2022. urtearen amaierara arte. Bigarren mailan, eta egutegi-doikuntzen ondorioz, 7 ekimen daude, % 40-60ko betetze-maila dutenak. Bigarren maila horretan kokatzen dira, batez ere, 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren zazpi proiektu adierazgarrietako batzuk. Hala ere, Legegintzaldiaren denbora-eremuaren barruan kokatzen dira erabat.

2.2.3. Lan-plangintzak jarduketa gehigarri berriak eta garrantzitsuak sartu ditu

2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren ekimenak abian jartzeari esker, gutxienez beste 12 jarduera gehigarri sustatu dira, hasiera batean lan-plangintzan aurreikusita ez zeudenak. Plana aktibatzeak dinamika eta sinergia berriak sortu ditu, eta horiek zabaldu eta aberastu egin dituzte ekintzen aukera eta programaren beraren betetze-mailaren balantzea.

2.3. Ondorioak

2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren garapen-mailaren ondorioak, aldiaren erdian, etorkizun hurbilera modu praktikoan proiektatzeko asmoz zehaztu dira. Balantze hori aurkezteko unean, 2023ko urtarrilean, urte eta erdi falta da Legegintzaldia betetzeko, eta zortzi urte 2030era iristeko. Esparru horretan eta ikuspegi horrekin, gogoeta hauek planteatzen dira.

2.3.1. Programa-konpromisoak zorrotz betetzea

Kudeaketa-planak planifikatu, programatu, garatu, egindakoaren memoria egin eta eguneratzeko diziplina, hori guztia modu garden eta dokumentatuan, bide eraginkorra da “zehatzaren metodologiarekiko” konpromisoa aplikatzeko. Lan egiteko modu horri esker, balantze oso positiboa lortu da aldiaren erdian, ez bakarrik Eusko Jaurlaritzaren kasuan, baita Euskadi 2030 Agenda Foroaren funtzionamenduan ere. Hori dela eta, ezar daitekeen lehen ondorioa da zorrotasun-diziplina horri jarraipena eman behar zaiola konpromiso programatikoak eta egutegi-konpromisoak zehazki betetzeari dagokionez, bai eta haien jarraipenari eta balantzeari dagokienez ere.

2.3.2. 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren lau lehentasun-ardatzetan sakontzea eta proiektu adierazgarrien garapena areagotzea

2021eko ekainean onartutako Legegintzaldiko Planak lau lehentasun-ardatz definitu zituen: (1) Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa; (II) Koordinazioa eta lankidetzako gobernantza; (3) Lerrokatzea, garapena eta ebaluazioa; eta (IV) Trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak. 18 hilabete hauetako ibilbideak berretsi egin du egituren eta lehentasunen hierarkia hori egokia dela. Trantsizio Sozialaren eta 2030 Agendaren Idazkaritza Nagusiaren sailen arteko eta erakundeen arteko lanak lau eremu horietan sakontzen jarraitu behar du, lehentasuna emanez. Era berean, zazpi Proiektu Adierazgarrien garapenak garrantzi berezia du Legegintzaldiaren amaierara arte geratzen den urte eta erdian.

2.3.3. Lokalizazioaren eta nazioartekotzearen ardatz bikoitza indartzea

Local 2030 egoitza globala Euskadin kokatzea erantzukizun bat da, nazioarteko lokalizazioaren eta lankidetzaren arloko ahaleginak indartzera bultzatzen duena, 2030 Agenda Euskadi Foroarekin eta haren kudeaketa-planarekin bat etorritik. Horretarako, barrurantz gehiago eta hobeto egin behar da (lokalizazio-konpromisoa), eta kanporantz gehiago partekatu eta trukatu (nazioartekotze-konpromisoa). *Lokalizazioari* dagokionez, lehenetsua eman behar zaio Legealdiaren amaierara arte trakzio-konpromisoen bultzada indartzeari. Nazioartekotzearen ardatzari dagokionez, estatuaz azpiko gobernuek GJHen betearazpenean eta gobernantzan duten zeregina sustatzera bideratu behar da lehenetsua.

Bigarren zatia
2023rako lan-plangintza

3. 2023rako testuingurua eta helburuak

3.1. Testuingurua

2020ko martxoaren 11n, OMEk adierazi zuen COVID-19ak eragindako epidemiak pandemia izaera zuela. OMEk oraindik ez du baliogabetu kalifikazio hori. Hala eta guztiz ere, pentsatzekoa da horren azken fasean gaudela, baina, 2023ko hasieran, pandemian jarraitzen dugu, eta infekzio-foku oso kezagarriak ditugu Txinan, besteak beste. Beraz, pandemiaren ondoriozko ziurgabetasunek indarrean jarraitzen dute mundu osoan.

Otsailaren 24an, Ukrainaren inbasioa hasi zen, eta 2022. urte osoan aktibo egon da, mundu osoan eta, bereziki, Europan era guztietako eragin suntsitzaileak izan baititu. 2023ko hasieran, gerrak aktibo jarraitzen du, eta, oraingoz, ez da zantzu argirik ikusten, nazioarteko zuzenbidearen eta giza eskubideen aurkako eraso horren amaiera hurbil bat iradokitzen duenik. Datozen hilabeteetan ere agertuko dira giza ondorioak, ondorio sozialak, ekonomikoak, energetikoak, inflazio-efektuak, geopolitikoak edo hornidurakoak.

Pandemiaren ondorioek eta gerraren ondorio suntsitzaileek mundu osoan eragiten jarraituko dute 2023an. Inflazioak, krisi energetikoak, larrialdi klimatikoak eta haren ondorio guztiek, bereziki sektore kalteberenetan, zailtasun globalen parte izaten jarraituko dute. Nazioarteko konplexutasun horri bi hauteskunde-prozesuk baldintzatutako tokiko testuingurua gehitu behar zaio: maiatzeko udal- eta foru-hauteskundeak, eta hauteskunde orokorrak, ziurrenik, urteko azken hiruhilekoan.

Testuinguru globalaren eta tokiko testuinguruaren konplexutasun eta zorigaitz horrek ez du balio behar konpromiso txikiago baterako justizia gisa, baizik eta hura areagotzeko akuilu gisa. Unearen zailtasunak ez dio premiarik kentzen GJHak bultzatzen jarraitzeko urgentziari, ez maila globalean, ez tokikoan. Aitzitik, gehiago lehenesten dira.

Hori ez da soilik Eusko Jaurlaritzaren iritzia, Nazio Batuen deia ere bada, pandemiaren aurretik eta pandemian zehar esplizituki azaldu dena. Lehenik eta behin, 2019ko irailean, Batzar Nagusiaren Ekintzaren Hamarkadari egindako deiarekin, eta 2021eko irailaren 10ean, Antonio Guterres Idazkari Nagusiaren "Gure Agenda Bateratua" Adierazpenarekin.

2023ko testuinguruan, zenbait faktorek konpromiso horren alde ere egingo dute. Alde batetik, behin betiko antolatuko da Euskadin *Local 2030* Koalizioaren Idazkaritzaren egoitza globala, eta horrek bultzada handia emango dio euskal erakundeek arlo horretan egiten duten lanari. Bestetik, 2030 Agenda Euskadi Foroak 2030 Agendaren gobernantza partekatuan lan egiten jarraituko du, *Local 2030* Bilbon kokatzeak eskaintzen dituen aukera berriekin bat datorren kudeaketa-plan batekin.

3.2. 2023rako helburu nagusiak

2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren garapenetik atera daitezkeen ondorioak, 2021eko ekainetik 2022ko abendura bitarteko aldian, etorkizun hurbilera modu praktikokoan proiektatzeko asmoz definitzen dira. Balantze hau aurkezteko unean, 2023ko urtarrilean, urte eta erdi falta da Legegintzaldia betetzeko, eta zortzi urte 2030era iristeko. Esparru horretan eta ikuspegi horrekin, gogoeta hauek planteatzen dira:

3.2.1. *Local 2030* Idazkaritzaren egoitza abian jartzen, garatzen eta koordinatzen laguntzea, babestea, parte hartzea eta laguntzea

Local 2030 Koalizioaren egoitza Euskadin kokatzea aparteko mugarrria da, eta bultzada horrek arreta eta laguntza handia merezi du Eusko Jaurlaritzaren aldetik. Helburu hori 2023ko kudeaketa-planean sartu behar da, lehentasun gisa. *Lokalizatzeko* nahiz *nazioartekotzeko* konpromisoa areagotzea dakar. 2023an, bi fase bete beharko dira. Lehenik eta behin, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartzen du egoitza izapidetzeko eta abian jartzeko prozesuan laguntzeko eta parte hartzeko erantzukizuna. Behin lehen etapa hori beteta, Eusko Jaurlaritzaren zeregina izango da *Local 2030* Idazkaritzarekin lankidetzara aktiboa zehaztea, bereziki Eragile anitzeko Gobernantzara bideratua, bai eta 2030 Agenda Euskadi Foroarekin eta gainerako euskal erakunde eta gizarte-eragileekin koordinazioa artikulatzea ere.

3.2.2. Lokalizazioa: 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programaren lau lehentasun-eremuak indartzea, zehatzaren metodologiaren sakonduz

Helburu horrek lau konpromiso eskatzen ditu. Lehenik eta behin, 2030 Agendaren komunikazioa eta dibulgazioa sustatzea; bigarrenik, 2030 Agenda Euskadi Foroaren kudeaketa-planak koordinatzea eta garatzea; hirugarrenik, jarraipen- eta ebaluazio-prozesuekin jarraitzea eta hiru erakunde-mailetarako adierazle partekatuak lantzeko prozesua amaitzea; eta, azkenik, trakzio-konpromisoen eta haien proiektu adierazgarrien garapena bizkortzea. Hori guztia, *zehatzaren metodologiaren* irizpide gidaria aplikatzen jarraituz. Hau da, GJHak betetzea errealizazio praktikoetan, zehatzetan eta ebaluagarrietan islatutako konpromiso bihurtzea. Gaiaren ikuspegitik, nazioarteko testuinguruak eta EAEko, Estatuko eta Europako errealitateak eskatzen dute garrantzi berezia ematea, GJHen barruan, trantsizio energetiko-klimatikoari, ekonomiaren deskarbonizazioari eta energia berriztagarrien sustapenari lotutako guztiari.

3.2.3. Nazioartekotzea: nazioarteko foroetan parte hartzea, estatuz azpiko gobernuen zeregina sustatzea eta jardunbide egokiak trukitzea

Local 2030 Idazkaritzaren misioa 2030 Agenda mundu osoko eskualdeetako eta tokiko gobernuen artean lokalizatzea da. Horrek areagotu egiten du GJHen arloko euskal esperientziaren nazioartekotzearen garrantzia, eta esan nahi du estatuz azpiko gobernuek garrantzi berezia hartzen dutela 2030era arte geratzen diren zortzi urteetan. Hori dela eta, 2023rako hiru helburu nagusien artean, Eusko Jaurlaritzak 2030 Agendaren arloan egiten duen jardueraren nazioartekotzea areagotzeari buruzkoa nabarmendu behar da. Ikuspegi praktikotik, horrek hiru jarduera-ildo indartzea eskatzen du: bata, nazioarteko foroetako parte-hartzea mantentzea eta handitzea; bi, GJHen gobernantzan estatuz azpiko gobernuek rol garrantzitsuagoa izan dezaten sustatzeko proposamena errepikatzea eta azpimarratzea; eta hiru, tokiko eta eskualdeko gobernuen artean edo nazioarteko foroetan eta sareetan esperientziak eta jardunbide egokiak –alde bikoak zein alde anitzekoak– trukitzea proposatzea eta praktikitzea.

4. Jarduketa-aurreikuspenak

2023rako GJHen arloko Eusko Jaurlaritzaren lan- edo kudeaketa-plana zehaztu berri diren hiru helburu nagusiek markatzen dute, eta, gainera, 2021ean 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programan jada ezarritako egutegi-aurreikuspenen garapenak. Puntu horretan, aurreikuspen horiek eguneratzen dira lehentasun-ardatz bakoitzean, eta lan-plangintzan txertatu diren jarduketa berriak gehitzen dira, kudeaketa propioaren ondorioz.

4.1. I. lehentasuna: Dibulgazio soziala eta herritarren inplikazioa

4.1.1. 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programako jarduketak

·GJHei buruzko urteko informazio- eta dibulgazio-kanpaina garatzea. 2023ko udazkenean beste kanpaina bat antolatzea aurreikusten da.

·2023ko laguntzen deialdia argitaratzea, Agenda 2030 Bonuen Programaren dirulaguntzak arautzen dituen otsailaren 15eko 23/2022 Dekretuaren arabera.

·Ikus-entzunezko materiala aurkeztea hezkuntza-esparruan didaktikoki aplikatzeko, 2030 Agendaren eta GJHen esanahiari, proiektioari eta garrantziari buruzko ezagutza eta kontzientzia handiagoa lortzeko.

·2030 Agendari buruzko dibulgaziozko prestakuntza-eskaintza berri bat sustatzea, herritar guztiei eta administrazio publiko guztietako langileei irekia.

·EGKrekin batera, “2030 Agenda Gazte Plazan” erakusketa ibiltaria bultzatzea, dibulgaziozko eta partaidetzazko ekimena, EAEko hainbat herritan.

4.1.2. Jarduketa gehigarriak

·Lankidetzak-akordio berri bat sinatzea Donostiako Zinemaldiarekin, Euskadi Basque Country 2030 Agenda Saria 2023 emateko jasangarritasunaren eta elkartasunaren balioak GJHen ikur nagusi gisa hobekien islatzen dituen filmari.

·Euskal erakundeen baterako ekimena bultzatzea, ekitaldi, hitzaldi edo komunikazio-kanpaina baten bidez, Euskadik 2030 Agendarekin duen konpromisoaren isla.

·Baterako ekitaldi bat antolatzea Basque Culinary Center-ekin (BCC) elikadura jasangarriari eta GJHei buruz.

·Jasangarritasunari eta 2030 Agendari buruzko graduondoko ikastaro bat bultzatzea, hiru euskal unibertsitateekin lankidetzan.

4.2. II. lehentasuna: Koordinazioa eta lankidetzako gobernantza

4.2.1. 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programako jarduketak

·2030 Agenda Euskadi Foroaren 2023ko Kudeaketa Plana onartzea eta dinamizatzea.

·Foroaren barruan akordio bat bultzatzea, Kultura eta Hizkuntza Aniztasunari buruzko 17+1 GJHa 2030 Agendan txertatzeko.

·Nazio Batuen erreferentziazko foro nagusietan eta gaikako taldeetan parte hartzea.

·2030 Agenda Euskadi Foroaren 2023ko Jarduera Memoriaren eta 2024ko Kudeaketa Planaren oinarria prestatzea.

4.2.2. Jarduketa gehigarriak

·Otsailean, GJHen erronka berriei buruzko topaketa parte-hartzaile bat antolatuko da world-kafean inspiratutako metodologiaren bidez, 2030 Agenda Euskadi Foroa osatzen duten pertsona eta erakunde guztiei parte hartzeko gonbidapena eginez.

·GJHen aldeko Arabako Aliantzarekin, BBK Fundazioarekin eta Zarauzko Udalarekin lankidetzak-protokoloak sinatzeko izapideak amaitzea.

·Administrazioen arteko akordioa ixtea, Nazio Batuen *Local 2030* Idazkaritzaren Bilboko bulegoa martxan egon dadin 2023ko lehen lauhilekoan.

·*Local 2030* Idazkaritzarekin lankidetzak aktiboa zehaztea, bereziki eragile anitzeko gobernantzara bideratuta, bai eta 2030 Agenda Euskadi Foroarekin eta gainerako euskal erakundeekin eta gizarte-eragileekin koordinazioa artikulatzera ere.

·ELGaren "A Territorial Approach to SDGs: Engaging Cities and Regions to ensure no-one is left behind" programa pilotuan parte hartzea. ELGaren lan-programako "GJHak eta Garapen Globaleko Agendak hirietan eta eskualdeetan kokatzea" arloaren barruan dago programa hori, eta aukera emango du konparazioak egiteko erreferentziazko eskualdeekin 2030 Agendaren inplementazioan.

4.3. III. lehentasuna: Lerrokatzea, garatzea eta ebaluazioa

4.3.1. 2030 Agendaren Lehentasunen Euskal Programako jarduketak

·2022ko Urteko Borondatezko Jarraipen Txostena Nazio Batuetan aurkeztea.

·Garapen Jasangarrirako Helburuen garapenaren eta betetze-mailaren jarraipena eta ebaluazioa egiteko adierazleen panel bat aurkeztea, hiru maila instituzionalek partekatzen dutena. 2023an zehar, beste 50 adierazle bateratuko dira, 2022an sortutako lehen 50 adierazleen panelari lotuta.

·Maila anitzeko Euskadi Basque Country 2030 Agenda eguneratzea.

·2030 Tokiko Agenda-Udalsarea 2030 hedatzen laguntzea.

·Eragile Anitzeko Agenda eguneratzea.

·GJHei buruzko azterlanak eta txostenak egiteko enkargua.

·Hartutako konpromisoak betetzeari buruzko 2023ko urteko txostena eta 2024ko kudeaketa-plana egitea.

4.3.2. Jarduketa gehigarriak

·GJHen ikuspegia aurrekontu publikoen lanketan eta kudeaketan pixkanaka txerta dadin bultzatzea.

·"Erronkak" argitalpenen bilduma sortzea 2030 Agenda eta GJHak sustatzeko interesgarriak diren gaiak dibulgazioz eta pedagogikoki aurkezteko. Bilduma horretan, urtero agintzen diren azterlanak eta txostenak sartuko dira.

4.4. IV. lehenetsuna: Trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak

4.4.1. 2030 Agendaren Lehenetsunen Euskal Programako jarduketak

·Zazpi proiektu adierazgarriak bultzatzea Legegintzaldiaren amaierarako eta egungo garapen-mailaren arabera.

-I. Ekitatea proiektua. Proiektu hau osatzen duten zazpi programak garatzen jarraitzea.

-II. Hezkuntzaren auzolana proiektua. Proiektuaren bigarren fasea hedatzea.

-III. Ekiola eta Klima-Ondarea proiektua. Ekiola: Energia berriztagarriak sortzeko eta kontsumitzeko kooperatiba berriak sustatzea. Klima-Ondarea: Txingudiko Badian eta Urdaibaiko Biosfera Erreserban aurreikusitako esku-hartzeetan aurrera egitea.

-IV. Opengela proiektua. Proiektuan aurreikusitako esku-hartzeak proiektatutako bost auzoetara zabaltzea.

-V. Osasun Globalaren proiektua. Ekimena 2023rako berrargitaratzea.

-VI. Basque Ecodesign Center proiektua. Ekonomia zirkularreko metodologiaren eta proiektu berritzaileen pilotajea abian jartzea.

-VII. *The Basque case: lessons learned for the prevention of violence and protection of peace* proiektua. Ponentziaren aurkezpena, 2023an zehar.

4.4.2. Jarduketa gehigarriak

·Sailen arteko bi bilera egiteko deialdia (otsailean eta urrian), trakzio-konpromisoak eta proiektu adierazgarriak koordinatzeko.

·Zazpi trakzio-konpromisoen eta haiei lotutako bilakaeraren eta kudeaketaren jarraipenari buruzko informazio-ekimenak bultzatzea, hainbat ekitaldi espezifiko eginez Legegintzaldiaren amaierara arte.